

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

Dokumentua:	IO-2015-028
Izena:	Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Lege-aurreproiektua

Nork egin:

Sin.: Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino

Proiektu-arduraduna

Eguna: 2015-07-06

Nork onartua:

Sin.: Javier Bikandi Irazabal

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa

Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria

Eguna: 2015-07-06

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 2/16

Proposamena:

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren espedientea bideratzeko ardura duen instruktoreak, 2015eko ekainaren 26ko sarrera-datarekin, Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Legearen aurreproiektuaren antolamendu-txostena eskatu du.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren (aurrerantzean HHABHZ) egitekoen artean dago *“Erakunde instituzionalen barne-egituraketaren, antolaketaren eta sorreraren arloko sailaren jarduerak, eta erakunde horiek ezartzen dituzten xedapen orokorrak aztertu eta ebaluatzea; eta, halaber, administrazioko sail eta erakundeei aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea antolaketaren eta prozeduren arloan”*, hori arautzen baitu **apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak**, 18 c artikuluan, abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak 6.1f artikuluan arautzen duenarekin lotuta.

HHABHZk Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Legearen aurreproiektuaren prestakuntzaren sustatzaile gisa diharduela kontuan hartuz, argi eta garbi dago egun bideratzen ari diren testu horretan dagoeneko barneratuta daudela haren irizpideak eta haren ikuspegia, antolamendu-eremuari dagokionez.

Hala ere, eta laburbilduz, ohartaraz daitezke zenbait gai garrantzitsu erakunde instituzionalen barne-egituraren, antolamenduaren eta sorreraren ikuspegitik eta prozeduren aldetik, izapidetzen ari den testu honetan hartutako aukerak, edo egoki eta bideragarri izan litezkeen beste aukera batzuk, argitzeko balio dezaketenak, horietako batzuk azaldu baziren ere Euskal Administrazio Publikoaren Lege-proiektuan, oraingo Lege-proiektu honen aurrekari izan zen hartan.

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 3/16

Balorazioa:

- Ikuspuntu teknikitik oso egokitzen jo zen bere garaian, eta horrela jaso zen Euskal Administrazio Publikoaren Lege-proiektua izapidetu zenean, arau-testu horretan bertan Euskal Administrazio Publikoaren egitura, antolamendua eta funtzionamendua barneratu izana, administrazio-kultura garatzeko erabili nahi diren printzipio eta balioak denontzat baliagarri direlako eta koherentziaz eta modu bateragarrian artikulatu behar direlako, bai antolamenduaren eta bai funtzionamenduaren aldetik, baldin eta benetan administrazio publikoetatik balio publikoa sortzeko beste modu baten alde egin nahi badugu, gai publikoetan herritarren erantzunkidetasuna sustatuz.
- Dena dela, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu izanak bi lege-proiektu egin zitzaala -*“bat euskal sektore publikoaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzkoa (euskal sektore publikoa hartuta erkidegoko eta foru- eta udal-mailako administrazio publiko guztiei lotutako sektore publikoen multzo gisa), euskal sektore publiko efiziente eta efikaza egituratzeko xedearekin, orain dauden erakundeak arrazionalizatzeko; eta beste bat euskal sektore publikoaren gardentasunari, parte-hartzeari eta gobernu onari buruzkoa, baliabide publikoak kudeatzeko gardentasun erabatekoaren aldeko eta herritarren parte-hartzearen aldeko apustua egingo duena eta, gainera, printzipio orokorrean gai, herritarrek euskal administrazio publiko osoarekiko harremanetan dituzten oinarritzeko eskubide eta betebeharrak jasoko dituen”*- ez luke oztopo izan beharko ezinbestekoa den koherentzia mantentzeko bi lege-testuetako printzipio eta balioen artean.
- Argi eta garbi jaso beharko litzateke hori 11. artikuluan, antolamendu eta funtzionamenduaren printzipioak azaltzean –gero Euskal Sektore Publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren lege-proiektuaren 4. artikuluan egiten duen bezala–, hots, zehazki adierazi beharko litzateke: ***“administrazio publiko guztientzat aplikazio orokorrekoa den arautegiko printzipioez eta beren barne-funtzionamendua arautzen duten printzipioez gain, Euskal Sektore Publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren legean ezarrita dagoen bezala, antolamendu eta***

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 4/16

funtzionamenduko printzipio hauek aplikatu behar dituzte sektore publiko horretan sartuta dauden instituzioek eta enteek:..“

- Oso positiboa da antolamendu-printzipioetan antolamendua diseinatzeko irizpide batzuk sartzea, funtzionatzeko modu berri bat baldintzatu eta ahalbidetuko dutenak, herritarrei begira irekiagoa, barnera begira kolaboratzaileagoa, helburuak betetzera eta helburuak lortzera eta kontu-ematera bideratuagoa izango den funtzionatzeko modu bat, eta alde horretatik bereziki egokiak dira 11.3 artikuluan jasotako a) b) d) eta e) letrak. Hala ere, 11.3 a) letraren bukaeran gehitu beharko litzateke: ***“eta administrazio barneko eta **administrazio arteko** koordinazioa bultzatzea”***, herritarrek erakundeen arteko kolaborazio handiagoa eskatzen dutelako gure gizarte honetan gero eta konplexuagoak diren premiei erantzuteko eta arazoei irtenbidea emateko.
- 13. artikulua. Gure iritziz, lege-proiektu honek koherentea izan behar du orain izapidetzen ari den euskal enplegu publikoaren legearen aurreproiektuan jasotzen diren artikuluekin; izan ere, aurreproiektu horretan arautzen da zuzendaritza publiko profesionalaren garapena eta aurreikusten da oraingo sailetako zuzendaritza asko langile profesionalak bete ahal izango dituztela, goi-kargu kategorია izan beharrik gabe. Horrek zuzendaritza publikoaren profesionalizatzeko nabarmena ekarriko luke. Gaur egun zuzendariak (goi-karguek) betetzen dituzten postu asko eduki tekniko profesional handikoak dira, eta postu horiek –Gobernu Planean ongi ezartzen badira helburu estrategikoak eta egin beharreko jarduerak, eta Jaurlaritzako sailburuek eta sailburuordeek zuzendaritza politikoa egoki egiten badute– efizientzia handiagoz beteko litzukete Jaurlaritza barnean (enplegatu publikoak) nahiz kanpoko profesionalen lan-merkatutik etorritako zuzendari publiko profesionalak. Horregatik, 13.4 a) artikuluan erantsi beharko litzateke: ***“...sailetan sailburuorde karguak betetzen dituztenak edo zuzendari karguak betetzen dituztenak, **horrela zehazten bada izendapen-dekretuan. Zuzendaritzako beste postu batzuk ere egongo dira sailetan zuzendaritza publiko profesionalaren estatutu juridikoa aplikatuko zaienak goi-karguen estatutua aplikatu beharrean”*****.
- 18. artikulua. Kide anitzeko organoak arautzen ditu. Orainsu aurkeztu da jendaurrean eta Eusko Legebiltzarrean Demokraziaren eta Parte-hartzearen Liburu Zuria, 400 lagun eta 150 erakunde baino gehiagoren lankidetzarekin prestatua, herritarrei esparru

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 5/16

publikoan paper garrantzitsuagoa izateko aukera emango dien gobernantza-eredu bat eraikitzeko abiapuntu gisa, gobernuek berek bakarrik ezin dietelako aurre egin gizartean gertatzen ari diren eraldaketei, eta kolektiboki partekatutako erantzukizunak sistema demokratikoa indartuko duelako, ahalmen handiagoa emango diolako kohesionatzeko, integratzeko, berritzeko, aberastasuna sortzeko aniztasunetik abiatuta eta lurraldearen aurrerabide jasangarria bultzatzeko. Hain zuzen ere, oinarritzko kontzeptuak eta printzipioak adostasunaren bidetik lantzeko prozesu horren baitan sortu zen aholkularitza eta partaidetzako kide anitzeko organoei buruzko debatea. Testualki, Liburu Zuriaren 44. orrialdean, Eusko Jaurlaritzak hartzen dituen konpromisoen barruan, honako hau jasotzen da: “3. *Euskadin dauden prozesu parte-hartzaileen eta kanal formalen inguruan azterketa kritikoa egitea. Nabarmentzekoa da da zer nolako garrantzia duen administrazio-egituretan integratuta dauden kontseilu eta organo parte-hartzaileak / aholku-emaileak berrikusteak, Liburu Zuria hedatzeko bidean ongi txerta dadin: zer balio ekar dezaketen horretan edota, are, parte hartzea eragotz dezaketen trabak izan daitezkeen ala ez*”. Horren arabera, komeniko litzateke lege-proiektuaren 18. artikuluan 6. paragrafo bat eranstea, Liburu Zurian adostutako printzipio eta planteamenduen ildo beretik, arrazionalizazio eta ebaluazioko neurri batzuk proposatzeko. Baliagarria izan liteke era honetako neurri bat: “6. **Aholkularitza- eta partaidetza-funtzioak indartzeko eta orain dauden aholkularitza- eta partaidetza-organoen sarea berrantolatzeko, lege hau indarrean jartzen denetik urtebeteko epean, dagoeneko sortuta dauden organoen analisisa egingo da modu parte-hartzailean, azken urteotan dituzten funtzioak, kideak, benetan egiten duten jarduera, duten aurrekontua eta eransten duten balioa aztertzeko, eta, ondorioz, berrantolatzeko Plan bat prestatzeko, aholkularitza- eta partaidetza-funtzioa sustatzeko proposamenekin.**

- Berritzailea da 19. artikuluan herritarrek eta elkarteek parte hartzeko eremu egonkorrak barneratu izana, politika publikoei buruz eztabaidatu dadin edo proposamenak egin daitezen, betiere elkarlana ardatz duen lanaren bidez eta gardentasunaren bitartez elkarrekiko konfiantzan oinarrituta, antolamendu-eredu malgu eta dinamikoei erantzunez, eta ez horrenbeste izaera formaleko antolamendu-egiturei, sarri askotan horien jarduerak eta emaitzak urriak edo balio erantsi gutxikoak izaten baitira.

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 6/16

- Era berean, aztergai dugun lege-testuan egoki azaltzen da administrazioen artean lankidetzan eta koordinatuta jardun beharra eta II. tituluko laugarren kapituluaren lankidetza ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa bideratzeko hainbat tresna artikulatzen dira, formalak batzuk eta ez hain formalak beste batzuk. Gainera, beste formula batzuk ere sartzen dira oso modu egokian, hala nola erakunde arteko organo batzuk sortzea.

Esaterako, 7. artikuluan arautzen den Euskal sektore publikoa arrazionalizatzeko eta dimentsionatzeko erakunde arteko batzordea, hiru mailetako erakundeetako adituz osatua. Batzorde horren zeregina da aztertzea ea eraginkortasun-gabezia, gainjartze eta bikoiztasunik dagoen sektore publikoen artean –bereziki euskal sektore publiko osoa kontuan hartuz– eta, baldin badago, jarduera-proposamenak egitea halakoak konpontzeko, eta, oro har, euskal administrazio publikoen funtzionamendua hobetzeko.

Eta bide horretatik doa Administrazio Elektronikorako Aholku Batzordearen sorrera ere, 74.2 artikuluan aurreikusia. Batzorde hori organo teknikoa izango da, euskal administrazio publiko guztiek parte hartuko dute bertan, guztien artean administrazioen arteko elkarreragingarritasuna bultzatzeko, eta, orobat, herritarrekiko harreman elektronikoak eta software publikoa berrerabiltzea sustatzeko, eta euskal administrazio publiko guztien informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko aukera emango duen leihatila bakarraren garapenean aurrera egiteko. Organo hori sortzea behar-beharrezkoa da, izan ere, estatuak autonomia-erkidegoekin duen jardunari erreparatuz gero, guztiz ezinbestekoa baita jardunbide koordinatu bat finkatzea eta politikoa baino gehiago teknikoa eta estrategikoa izatea.

- Erakunde-antolamenduari dagokionez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko uztailaren onetsitako EAEko Sektore Publikoa Berrantolatze eta Arrazionalizatzeko Estrategia erreferentziatza hartuta, arau-testu honetan oso elementu interesgarriak barneratu dira, bai egun dugun sektore publikoa berregituratzeko eta bai erakunde-administrazioa eta erakunde instrumentalak EAEko Administrazio Orokorrarekin estrategikoki lerrokatze ere. Funtsezko elementuak dira: erakunde berriak sortzeko motibazio nahikoa izatea; bideragarritasun ekonomikoari buruzko alde aurreko kontu-ikuskaritzak; erakunde berriak sortu ondoren dagoena berrantolatze azterketa;

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 7/16

ezarritako kontrol-prozedurak; parte-hartze ekonomikoaren eta erabakitze-organoen ordezkartzaren artean nahitaez egon behar duen proportzionaltasuna; Eusko Jaurlaritzaren plangintza eta politika orokorreko irizpideei men egitea; eraginkortasun eta efizientziari buruzko urteko ebaluazioak; erakunde-administrazioako eta erakunde instrumentaletako langileen lan-baldintzak enplegu publikoaren eta aurrekontuen alorrean eskumena duten organoen arauzko txosten lotesleen edukiarekin bat etortzea; erakunde bakoitzeko zuzendaritza-postuen kopurua mugatzea eta horiek dekretu bidez izendatzea; eta batez ere, erakunde autonomoen sorrera mugatzea, baldin eta Administrazio Orokorreko egituretatik edo zuzenbide pribatuaren mende dauden erakunde autonomoetatik soilik interes orokorra asetzerik ez badago, ekimen pribatuak zerbitzu edo prestazio jakin bat eskuratu ahal izatea behar hainbat bermatzen ez duenean.

- Egia da alternatiba apurtzaileago bat aukeratu zitekeela, egun dugun pertsonifikazio juridikoen eredua zalantzan jarriz eta formula aurreratuagoak bilatzen ahaleginduz, Ipar Europako estatuak jorratutako bidetik, horrek lagundu egingo lukeelako gaur egun ditugun erakunde tipologiak sinplifikatzen eta antolamendu eta funtzionamendurako formula malguago eta dinamikoagoetara hurbilduko gintuzkeelako, ez hain hierarkikoak eta osotasunean egokiago txertatuak. Baina begi-bistakoa da edozein alternatiba apurtzailek, berrikuntzarako aukerak ez ezik, arriskuak ere badakartzala berarekin, eta horiek ez dira beti kalkulatzeko errazak eta beti ezin dira aldeztatik kontrolatu.
- Bigarren kapituluan EAEko sektore publikoan sartzen diren Erakundearen ebaluazioa arautzen da, eta 52. artikuluan ebaluazioaren erregimena. Hain zuzen ere, artikuluko 3. paragrafoan, azkeneko esaldian ezartzen da herritarrek kanpo-zerbitzuen prestazioari buruz duten iritzia erantsi beharko zaiola ebaluazioari. Gure iritziz, erredakzio osatuagoa eman beharko litzaioke: ***“Nolanahi ere, ebaluazio horrek planteamendu plurala izango du eta kontuan izango du gizarte-eragileen ikuspegia, onuradunena eta ukitutako sektoreena, eta baita ere unibertsitateen eta ikerketa-erakundearen aditu-ikuspegia”***, horrela ematen den kontzeptua zabalagoa delako eta barne hartzen dituelako zerbitzu publikoek eman ditzaketen zerbitzuetan parte har dezaketen pertsonak eta erakundeak, hala nola enpresak,

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 8/16

herritarren erakundeak, administrazioak, gizarte-eragileak, ikasleak, pazienteak, erabiltzaileak, kontsumitzaileak...

- Positiboki baloratzen da 53.1 e) artikuluan sartu izana sektore publikoaren ebaluazio-txosten orokorra, Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, jardueraren etengabeko jarraipena egin ahal izateko eta efikazia kontrolatzeko, Legebiltzarrerara bidali beharko dela, jakinaren gainean egon dadin, Legebiltzarrak sektore publiko osoaren ekintza kontrolatzeko neurri gisa.
- Aurrerapen handitzat jotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko Erakundearen Erregistroa sortu izana, arrazionalizaziorako eta gardentasunerako neurri gisa.
- Legearen V. tituluan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamenduari buruzkoan, argi eta garbi finkatzen da zein diren XXI. mendean administrazioa berritzeko eta hobetzeko apustu batek eskatzen dituen eduki estrategiko handiak, printzipioei, eskubide nahiz bermeei eta aginduei dagokienez. Kultura juridikoari oso loturik dauden administrazio-kulturetan bitxia gerta daiteke jarduera-printzipioz hain osatuta dagoen lege-testu bat, xede hertsatzailerik gabea, baina administrazio barruan balio, prozedura eta ikuspegiaren aldaketa kulturala benetan sustraitzea nahi badugu, beharrezkoak dira hura norabide egokian, Gobernu Onaren eta Administrazio Onaren bidean gidatuko duten printzipio inspiratzaileak. Eta horrek bat etorri behar du Euskal Sektore Publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren legean ezartzen diren printzipioekin ere. Alde horretatik, lege bateko 64. artikulua eta besteko 4. artikulua bat etorri beharko lukete, baina ez dute gauza bera esaten, izan ere, Euskal Sektore Publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren legean zehazten diren 4 printzipio ez dira agertzen lege honetan eta beste batzuk bakoitzak bere erara erredaktatzen ditu. Gure ustez, berdin-berdin erredaktatu beharko lirateke bi artikuluhoriek, eta proposatzen dugu Euskal Sektore Publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren legearen 4. artikuluko erredakzioari egokitzea gehienbat, honela:

a) Legitimitate demokratikoa: ~~(bere)~~ izateko arrazoia herritarrek dira, eta, horregatik, herritarren beharrianak antzeman, kontuan hartu eta asetzerak

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 9/16

bideratzen du bere jardun publikoa, ***beti interes publikoa lortu nahian eta gizarteari zerbitzu emateko borondatea ezaugarri duela***

b) Jasangarritasuna: aurrerabide soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa lortzera bideratuko du bere jarduerara.

c) Elkartasuna: premiarik handiena dutenekiko elkartasun-printzipioaren arabera jokatu du, hori baita kohesioaren eta oreka sozialaren oinarria, eta, horretarako, gizarte-bazterketari aurre egiteko behar diren bitarteko guztiak jarriko ditu.

d) Aurrea hartzea: ahal duen heinean, herritarren arazoei eta eskaerei aurrea hartu behar die, bai politikak taxutzerakoan eta bai herritarren beharrei erantzuna ematerakoan.

e) Hizkuntza-normalizazioa: administrazio-jardueran euskararen erabilera normaltzea bultzatuko du.

f) Politika eta zerbitzuen programazioa, plangintza, kontrola eta ebaluazioa: tresna egoki eta nahikoak sortuko ditu programazio-prozesuak, politiken plangintza, emaitzen ebaluazioa eta kontrola, eta ondoren herritarrei horren guztiaren berri ematea txukun egingo direla bermatzeko.

g) Erantzukizuna kudeaketan: argi eta espresuki adieraztea herritarrekiko dituen betebeharrak, bere kudeaketaren berri emanez, eta, hala badagokio, bere erabakiek eta jarduerak dakartzaten erantzukizunak bere gain hartuz.

h) Objektibotasuna: bere politiken eta zerbitzuen emaitzak adierazle objektibo, neurgarri eta Europa mailan homologagarri direnen arabera neurtzea, kudeaketa kalitatezkoa dela egiaztatzeko.

i) Koherentzia: etengabe, benetan eta egonkortasunez emango ditu zerbitzuak, herritarrek ezagutzen eta onartzen dituzten egoerak beharrik gabe apurtu edo aldatu gabe.

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 10/16

j) Parte-hartzea eta lankidetzak: bere politikak taxutzen eta bere zerbitzuak kudeatzen dituenean, herritarrei bermatu egingo die indibidualki nahiz kolektiboki gai publikoetan parte hartzeko, lankidetzan aritzeko eta inplikatzeko aukera, genero-berdintasunaren ikuspegia txertatuz eta, oro har, pertsonen edo kolektiboen heterogeneotasuna kontuan hartzen duen ikuspuntu inklusiboa bultzatuz.

k) Gardentasuna: gardentasunez jardungo du, eta hark hartzen dituen erabakiei eta erabakien erantzuleei, erabaki horien deliberazio-prozesuei eta zerbitzuen antolamenduari buruzko informazio garrantzitsua ezagutu ahal izango dute herritarrek.

l) Publizitate aktiboa: aldizka eguneratu eta publiko egingo du informazio objektibo, egoki eta egiazkoa, gardentasuna bermatzeko.

m) Irisgarritasun-printzipioa: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak irisgarritasun unibertsala betetzen dela bermatuko du bere bulegoetan, bere politiken diseinuan eta bere jardura guztietan.

n) Soiltasuna eta ulergarritasuna: izapideen konplexutasuna murriztuko du, eta arau eta prozedura argi eta errazak edukitzeko bidea emango du, administrazioa herritar guztiengana iristea ahalbidetzen duen hizkera ulergarria erabiliz.

ñ) Neutraltasun teknologikoa: teknologia eta informatikaren esparruan estandar ireki eta neutralak erabiltzeko eta sustatzeko apustua egingo du, eta, ahal den guztietan, soluzio ireki, bateragarri eta berriz erabiltzeko modukoak hautatuko ditu aplikazio eta garapen informatikoak kontratatzeko, bere funtzionamenduan kode irekiko softwarea erabiliz, hala badagokio.

o) Berrikuntza publikoa: mekanismo eta prozedura berritzaileak bultzatuko ditu, batez ere teknologia berriak erabiliz eta horien funtzionamendua eta egitura etengabe beharizan berrietara egokituz.

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 11/16

p) **Efizientzia** eta etengabeko hobekuntza: etengabeko ebaluazioko prozesuak erabiliko ditu, gabeziak antzeman eta konpontzeko eta, horrela, herritarrei zerbitzu eraginkorrak emateko.

- Ez da kasualitatea EA Eren funtzionamenduari buruzko V. titulu hau herritarrek administrazio publikoarekin dituzten harremanen alorreko eskubide eta betebeharrekin hastea, herritarrek direlako jardun publikoaren izateko arrazoia eta funtsezko ardatza, eta ez prozedurak, horiek bitarteko hutsak baitira, eta ez xede. Horrela, administrazio on baterako Eskubidea zehaztu da, demokrazia-eredurik aurreratuenekin bat etorriz, eta nabarmen geratu da, besteak beste, herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eskubidea eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, herritarrek parte hartzeko eta jardun publikoa kontrolatzeko oinarrizko baldintza direla. Horren osagarri dira administrazio elektronikoarekin lotutako eskubideak eta, jakina, herritarrekin interakzioan jarduteko kanal anitzeko sistema.
- 65. 3 d) artikuluan, informazio-eskubideaz ari dela *“Administrazio Publikoaren artxibo eta erregistroetarako irispidea”* dioen lekuan, *“Administrazio Publikoaren **informazio, artxibo eta erregistroetarako irispidea**”* esan beharko luke, 30/92 legeak (gero 19/2013 legeak aldatuak) eta orain parlamentuan izapidetzen ari diren administrazio-prozedura erkidearen lege-aurreproiektuak xedatutakoarekin koherente izateko.
- Administrazio Publikoen administrazio-prozedura erkidearen lege-proiektua parlamentuan izapidetzen ari direnez, eta itxura guztiaren arabera onarpena emango diotenez, lege hartan jasotako eduki asko kontuan izan beharko lirateke, arau hau koherentea izan dadin harekin eta desfasatuta gera ez dadin sortu orduko ia.
- Esate baterako, 65.3 f) artikulua bukaeran gehi liteke parlamentuan izapidetzen ari diren administrazio-prozedura erkidearen lege-proiektuan 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, “ **eta erantzukizunak eskatzeko eskubidea legez hala dagokionean**”.
- Gainera, l) letra bat ere gehi liteke administrazio-prozedura erkidearen lege-proiektuak 27. artikuluan ezarritakoarekin koherente izateko: **“l) Euskal administrazio publikoarekin sarbide-puntu elektroniko orokor baten bidez komunikatzeko eta baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza izateko eskubidea”**.

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 12/16

- Bestalde, m) puntua ere hobeto eman liteke: *"m) Zerbitzua zein agintaritza edo langileren erantzukizunpean ematen den jakiteko **eta errespetuz eta begirunez tratatuak izateko** eskubidea."*
- Administrazio-prozedura erkidearen lege-aurreproiektuak 27. artikuluan zehaztutako eskubide batzuk falta dira eta horiek gehitzea ere komenigarria izan liteke, esaterako, sinadura elektronikoari eta datu pertsonalen babesari buruzkoak (honela dio 27. artikulua horrek: **g) legean jasotako identifikazio-bitartekoak eta sinadura elektronikoa lortzea** ; eta **h) Administrazio publikoen fitxategietan, sistemetan eta aplikazioetan dauden datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzea.**
- Erakunde batek bere eginkizuna betetzeko prozedurarik egiazkoena haxe da: bere helburuen plangintza egitea, horiek erdiesteko bitartekoak programatzea bideragarri egingo dituzten kudeaketa-sistemen bitartez, eta azkenik, horren emaitzak eta ondorioak balioestea, helburuetan aurrera egiteko eta kontuak emateko. V. tituluaren bigarren kapituluaren kudeaketa publiko aurreratuko sistemak ezartzeari buruz eta kudeaketaren ebaluazio buruz araututako guztia berritzailea, arduratsua eta konprometitua da, eta oso baliagarria jardun publikoan lortu nahi den eraginkortasun eta efizientziara hurbiltzeko; baina printzipio horiek administrazio-prozedura arautzeko orduan oso finkatuak badaude ere, orain arte ia ez dira praktikan jarri.
- Instrumentalagoa eman dezake hirugarren kapituluak Administrazio elektronikoari dagokionez, nahiz eta erkidegoan ez genuen ezertxo ere lege mailan arautua, eta sartzen diren elementuetako batzuek lege mailako araua behar dute, izan ere, instrumentalak izanagatik ere, ez direlako garrantzirik gabeak, administrazioa sinplifikatzeaz edo zerbitzu publikoak birtualki, kanal publiko nahiz pribatuaren bitartez edo administrazioen arteko lankidetzaren bitartez –hala nola arestian aipatu dugun Administrazio Elektronikorako Aholku Batzordearen bitartez– eskuratu ahal izateaz ari garenean.
- Hala ere, une honetan bada zirkunstantzia bat lege-proiektu honen edukia izugarri baldintzatzen duena: parlamentuan izapidetzen ari dira Administrazio publikoaren administrazio-prozedura erkidearen lege-proiektua eta Sektore publikoaren erregimen

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 13/16

juridikoaren lege-proiektua, eta biek daukate onartuak izateko itxura handia. Bi horietako lehenengoak 30/92 legea ordeztuko luke eta arau-xedapen ugari indargabetuko lituzke, besteak beste, 11/2007 legea –herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoa– oso-osorik. Bi legeek ematen duten administrazio kontzeptuan, argi eta garbi ikusten da sistema elektronikoa erabat inposatzen dela barneko jardueran eta ia erabat (alfabetatze digitalean zailtasunak dituzten kolektibo batzuk salbu utzita) herritarrekiko eta erakunde pribatuekiko harremanetan. Horregatik, jadanik ez da hitz egiten administrazio elektronikoaz, dena elektronikoa izango delako. Ia dena arautzen da oinarrizko izaeraz, eta, beraz, alferrikakoa izango litzateke seguru asko erkidego mailan zehatzago arautzen saiatzea.

- Esate baterako, eta 68. artikulua aipatuz, ikustekoa izango litzateke zenbaterainoko balioa duen gure lege-proiektuan zehazteak euskal sektore publikoak baliabide elektronikoak erabili beharko dituela (1. paragrafoa), oinarrizko araudian dagoeneko ezarrita baldin badago; hala ere, interesa izan lezakete bai administrazio elektronikoaren funtzionamendua kontrolatzeko bitartekoak jartzeak, eta bai 2. paragrafoan zehazten den administrazio elektronikoaren ezarpenari buruzko txostenak.
- Administrazio elektronikoaren printzipioei dagokienez, ez zirudien oso koherentea printzipio orokorretatik bereizita ematea, lege berrian desagertu egin direlako eta printzipio orokorrekin batera sartu direlako. Horregatik, lehen adierazi ditugu gure ustez 65. artikuluan egin beharreko aldaketak. Beraz, 69. artikulua kentzea proposatzen da.
- Berdin gertatzen da eskubide eta betebeharrekin ere, izan ere, lege-proiektu berritik kendu egin dituzte eskubide eta betebeharr horiek (11/2007 legetik zetozen) eta zaharkituta geratuko dira. Administrazio elektronikoa inplementatzen hasten ari zen garaikoak dira, baina arlo horretan izan diren aurrerapenak kontuan izanda, ez dago hainbeste azalpen eman beharrik. Beraz, 70. artikulua kentzea proposatzen da.
- 71. artikulua dagoen bezala utz liteke, 68. artikulua mantentzen bada. Hala ere, 72. artikulua ez du funtsik. Bitarteko elektronikoen bidez parte hartzea Euskal Sektore Publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren lege-

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 14/16

proiektuaren edukiari dagokio, bereziki, proiektu horretan 81. artikuluan jasotzen den gobernu irekiaren plataformaren bitartez bideratzeari.

- Administrazio elektronikoko taldearen iritziz, 73. artikulua ez da beharrezkoa, eta, gainera, kontraesanean egongo da onartzeko zorian dagoen oinarritzko araudiarekin. Beraz, ezabatzea proposatzen da.
- 74. artikuluko 2. paragrafoari dagokionez, egokiago ikusten dugu “Administrazio Elektronikoen Euskal Kontseilua” terminoa “Administrazio Elektronikoen Aholku Batzordea” baino, aholku-emailea baino gehiago instrumentala eta koordinaziokoa delako. Era berean, egokiagoak dira jarraian zehazten diren funtzioak, orain testuan daudenak baino:
 - a) Administrazio Elektronikoen garapena eta software publikoaren berrerabilera bultzatzeko jarduera-plan eta -programa bateratuak prestatzea.
 - b) Administrazio publikoek erabiltzen dituzten sistema eta aplikazioen eta herritarrekiko harreman elektronikoen bateragarritasuna eta elkarrengarritasuna lortzea, bereziki, herritarrekiko harreman elektronikoa bideratzen dutenena.
 - c) Euskal Administrazioen artean datuak eta dokumentuak trukatzeko tresnak sortzea bultzatzea, administrazio-prozeduren kudeaketa errazteko eta herritarrek eta enpresek jasaten dituzten karga administratiboak arintzeko.
 - d) Lankidetzaproiektuak bultzatzea zerbitzu elektroniko erkideak garatzeko eta azpiegitura teknologiko partekatuak erabiltzeko.
 - e) Herritarrei euskal administrazioek Interneten argitaratzen duten informazioa bilatzen eta eskuratzen laguntzeko estandarrak garatzea, esaterako, web eduki mota batzuen gutxieneko egitura erkide batzuk, web edukiak katalogatzeko eredu partekatuak eta edukien argitalpen-abisuetarako harpidetza-sistema erkideak.
 - f) Herritarrei arreta integratuagoa emateko neurriak proposatzea, edozein administrazioen oinarritzko informazioa informazio-sistema partekatuetan eman ahal izateko eta beste administrazio bati zuzendutako dokumentuak erregistratu ahal izateko, erregistro-idazpenak elektronikoki trukatzeko sistema baten bidez.

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 15/16

- g) Leihatila bakarraren garapenerako lagungarriak diren ereduak diseinatzea, euskal administrazio publiko guztietan erabili ahal izan dadin informazio publikora iristeko eskubidea.
 - h) Informazio-teknologiaren esparruan aurrezteko, arrazionalizatzeko eta efizientzia hobetzeko neurriak proposatzea.
 - i) Administrazio elektronikoaren arloan informazio eta ezagutza partekatua sustatzea, azterlanak, txostenak edo estatistikak eginez.
 - j) Administrazio elektronikoari buruzko prestakuntza-plan bateratuak proposatzea.
 - k) Urteko txosten bat egitea Euskadiko administrazio elektronikoari buruz, eta txosten horretan azaltzea zerbitzu elektronikoaren erabilgarritasuna, erabilera-maila, herritarren gogobetetasuna, gaiari buruz jasotako kexa eta iradokizunen analisia, eta zerbitzu elektronikoaren kalitatea eta herritarrek administrazio publikoarekiko interakzioan duten gogobetetasuna hobetzeko neurriak proposatzea.”
- 75. artikulua bere horretan utz liteke 68. eta 71. artikulua mantentzen badira.
 - Azkenik, azpimarratzea komeni da, gaztelaniazko testuari dagokionez, oro har betetzen den arren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, lege horretan esaten dela “Euskal herri-aginteez ez dutela hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan” eta bi sexuei buruzko termino batzuk maskulinoan aipatzen direla. Alde horretatik, gaztelaniazko testua berrikusi beharko litzateke. Zehazki, esate baterako, “ciudadano” jartzen du 5 c), 68.1, 69.1, 71.2 a)b)c), 72 eta 74.3 artikuluetan eta horren ordez “ciudadanía” edo “ciudadanas y ciudadanos” jar liteke; “empleado” erabiltzen da 48.9 artikuluan eta 62 artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan, eta “personal empleado” edo “empleadas y empleados” erabil liteke...

Ondorioak:

Horiek dira antolamenduaren eta prozeduren diseinuaren aldetik Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Legearen Aurreproiektuari egin dizkiogun

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-028

Orrialdea: 16/16

oharpenak; betiere, kontuan hartuta zer eskumen ematen dizkigun ***apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak***, 18. c. artikuluan.